

Aplikazioak: elkarrekin, ez nahasita

iOSek eta Androidek aukera bat baino gehiago eskaintzen dituzte mugikorrean ditugun aplikazioak ordenatuta edukitzeko



la egunero agertzen da berriren bat. Badira sukaldean ikastekoak, kirola modu osasungarrian egitekoak, jolastu eta ikastekoak... Eta hainbesteko zerrenda izanik, aplikazioak antolatze-ko aplikazioak ere behar ziren, eta, egia esan, arrakasta handia izan dute azken belaunaldiko telefonoak dituztenen artean. Android eta iOS darabiltzaten telefono mugikorrenzat aplikazioak eskaintzen dituzten dendek programa asko eta asko dituzte aukeran. Eta aurreantzean ere bide beretik jarraituko dute: kalkuluen arabera, milioi bat aplikazio eskaintzera iritsiko dira aurten Apple App Store eta Google Play Store. Erabiltzaileek baliatu egiten dute aukera hori, eta dozenaka aplikazio izaten dituzte *smartphoneetan* instalatuta.

Pantailak ordenatzea

Orri nagusian: gehien erabiltzen diren aplikazioak jartzea komeni da, eta horiekin batera, erabilgarri gertatuko den *widgeten* bat; adibidez, Interneteko bilatzaile baterako sarbidea edo eguraldiaren berri ematen duena. Gainera, orriaren behealdean programa batzuk eduki daitezke beti finko, han ager daitezzen pantaila batera edo bestera sartzen garenean. Komeni izaten da, halaber, orri nagusian jartzea aplikaziorik funtsezkoenak; besteak beste, deiak egitekoa, web-nabigatzailea, posta elektronikoa eta berehalako mezularitza-zerbitzuren bat edo SMS zerbitzuren bat.

Bigarren eta hirugarren orrietan: zenbait karpeta sor daitezke, eta horietan multzokatu eta bildu aplikazioak, funtzioen edo sailen arabera.

Hurrengo orrietan: interesgarria izaten da aplikazioetarako sarbidea emango duten *widgetak* ezartzea; esaterako, multimedia erreproduktore bat, albiste-emaileak, zereginen egutegiak eta bideo-kanalerako sarbidea.

Aplikazioak karpetan biltzea

iOS sistema eragilea darabilen gailuren bat dutenek (iPhone telefonoa, iPad tableta eta iPod Touch multimedia-erreproduktorea) aukera dute karpetak sortzeko eta aplikazio motaren arabera sailkatzeko. Karpeta horietako bakoitzak, gehienez ere, 12 programa bil ditzake.

Oso erraza da karpetak sortzea. Hatzarekin aplikazio bat sakatu eta halaxe eduki behar da tartetxo batez (era horretan, edizio modua aktibatuko zaio), eta keinuka hasten denean, multzokatu nahi den beste programa baten gainera eraman behar da. Hori eginda, sistemak berak automatikoki sortzen du karpeta bat eta multzokatu ditugun bi aplikazio horiek biltzen ditu. Beste aplikazio batzuk eransteke ere gauza bere egin behar da: sakatuta eduki eta hatzarekin karpetara eraman. Eta multzotik ateratzeko modua ere berbera da: gainean sakatu, eta keinuka hastean, karpetatik kanpo jarri.

Androiden, sistema eragilearen zein bertsio darabilgun, era batera edo bestera sortu beharko dira karpetak, guztietan ez baita berdin egiten. Hatzarekin pantailari tartetxo batez eraginda, menu bat agertzen da, eta aukeren artean, idazmahaiaren karpeta bat sortzeko modua ematen du; ondoren, aplikazioen menua jo, nahi ditugunak aukeratu eta hatzarekin eraman behar dira. Android 4.0 darabilten zenbait gailutan, iOSen bezalaxe sor daitezke karpetak; hau da, programa bat hautatu, eta beste baten ikonoaren gainean jartzen da, karpeta sortu eta multzokatuta gera daitezten.

Badago beste software mota bat ere Androiden karpetak antolatze-ko; Folder Organizer izenekoa da aipagarriena. Aplikazio horrekin, era askotako elementuak multzokatu daitezke, etiketen arabera: aplikazioak, markagailuak, solaskideak, zuzeneko sarbideak... Aukera ematen du, gainera, ikono, karpeta eta widget pertsonalizatuak sortzeko. Programa horrek bi bertsio ditu: doakoa da bat, eta ordaindu beharrekoa bestea (0,99 euro hilean).

Aplikazio baten arrakasta

Aplikazioen merkatua izugarri handia eta oso dinamikoa da: ia egunero sortzen da berriren bat, eta beste batzuk desagertu egiten dira arrakastarik izan ez dutelako. Asko eta asko iritsi ere ez dira egingo jendearengana, eta inork probatu gabe geratuko dira, erabiltzaileek ez daukatelako behar adina tresna mugikorrekin bilaketa egokiak egiteko aplikazioen dendetan.

Aplikazio batek arrakasta lortzen duenean, askotan eta askotan, gehiago izaten da sortzaileek ongi asmatu dutelako sare sozialetan mugitzen edo prentsan haren berri ematen, eta ez erabiltzaileen beharrei erantzuteko gaitasuna duelako edo ez duelako. Era berean, ohikoa izaten da herritarrek ez ezagutzea hainbat eta hainbat aplikazio, zinez erabilgarriak izan daitezkeenak haien artean. Halako egoerak saihesteko, programa berriak bilatzen dituzten zenbait aplikazio agertu dira, bai iOS sistema eragilearekin erabiltzekoak eta bai Androidekin erabiltzekoak. Horien artean, AppDJ nabarmentzen da (<https://play.google.com/store/apps/details?id=appdj.android>). Lehenik, erabiltzailearen lehenetsunak edo interesak zein diren zehazteko eskatzen du, eta, ondoren, aldi behin, interes horiekin zerikusia duten gomendioak egiten dizkio. Bestea aplikazio aipagarria Mapsaurus da (<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.mapsaurus.apps>). Mugikorrean edo tabletan instalatu, eta erabiltzaileak lehendik dituen aplikazioen berri jasotzen du. Horietatik abiatuz, iradokizun-mapa bat egiten du, aplikazio berriek eta lehendik daudenek dituzten antzekotasunetan oinarrituta.

Aplikazioak abiaraztekoak, Androiden

Android sistema eragileak tarte gehiago uzten du elementuak pertsonalizatzeko iOSek baino, azken hori Applek kontrolatzen baitu. Aplikazioen dendan aurki daitezkeen batzuek, hain zuzen, modua ematen dute idazmahai osatzen duten orrien ingurune grafikoa aldatzeko. Era horretan, norberak nahi bezala ikusi eta antola daitezke programak pantailan, eta ez sistema eragileak berak egiten duen bezala derrigorrean.

Aplikazio mota horrekin, zenbait gai pertsonaliza daitezke, eta efektu grafiko ugari eskaintzen dituzte horretarako. Gainera, Android darabilten telefonoen ekoizle nagusi bakoitzak bere bitartekoak jartzen ditu aplikazioak abiarazteko; horiei esker, erraztu egiten dute aplikazioak antolatze modua, eta lehiakideena ez bezalako ingurune grafikoa eman dakieke.

Google Play dendak eskura jartzen dituen aplikazio abiarazleen artean, honako hauek nabarmentzen dira: GO Launcher EX, MXHome Launcher eta ADWLauncher EX. Azken horrek 2,78 euro balio du, eta ezauzgarri ugari dauzka *smartphonearen* orrien edo pantailen diseinua pertsonalizatzeko. //

